

## Umeen mañaria

**2016. urtean, non  
gastatuko zeunkez  
10.000€?**

Udalak herriko haurren parte-hartzea sustatzea eta indartzea nahi du.

Urteak dira herrian aurrekontu parte-hartzaileak egiten ditugula eta haurrak bertan kontuan izatea nahi dugu.





## 6-12 urteko Mañariako Haurrei zuzenduta

Komunitateko partaideak diren heinean, erabaki esparruetan egoteko eskubidea daukate eta beraien parte-hartzea bermatu behar dugu.

Parte-hartze bidez lortutako haurren protagonismoak haurren poteratzea dakar.

## Planteatzen ditugun pausoak

- 2016eko aurrekontuetan herriko haurren iritzia kontuan izatea, 10.000€ erabiltzeko.
- Euren nahiak eta interesak ezagutzea.
- Herriko haurren parte-hartzea sustatzea.
- Haurren eta familien ahalduntzea indartzea.

## Emango ditugun pausoak

Parte-hartze saioak haurrekin (2 saio)

### 1. saioa

Prozesuaren azalpena eta haurren proposamenak.

### 2. saioa

Proposamenak aztertu eta erabakiak hartu.

Saio batetik bestera udalean haurrek egindako proposamenak aztertuko ditugu eta 2. saioan haurrei beraien bideragarritasuna azalduko zaie.